# PELLO

Pello korrika ibili da eta erori da. Belaunean hartu du mina. Belauna gorri-gorria jarri zaio. Amak belauna poliki - poliki igurtzi eta urez garbitu dio. Garbitzen dion bitartean istorio polit bat kontatu dio. Euli bati, inurri bati eta kanguru bati buruzko istorio poli - polita kontatu dio amak Pellori. Pellori irribarrea atera zaio.

1- Non hartu du mina Pellok?

2- Nola jarri zaio belauna Pellori?

3- Zer erabili du amak Pelloren belauna garbitzeko?

4- Zer egin du amak Pelloren belauna garbitzen zuen bitartean?

5- Zer animaliak dira istorioaren protagonistak?

6- Zer atera zaio Pellori bukaeran?